



La  Salle

GIZARTE EKINTZA

Arlep Barrutia

**La Salle Gizarte Ekintza
dokumentu markoa**

La  Salle



Dokumentu honi buruz

- Barrutiko Animazio Taldeak (BAT) egina.
- Barrutiko SHM Kontseiluak baietsia (2023ko urriak 20).
- 📍 Marqués de Mondéjar kalea, 32. 28028 - Madril.
- ✉ educacion@lasalle.es
- 🌐 www.lasalle.es
- 📘 La Salle Arlep
- 🐦 [@sallearlep](https://twitter.com/sallearlep)

Aurkibidea

1	Justifikazioa	... 3
2	Uste sendoak	... 5
3	Definizioa	... 8
4	Gure misioa	... 9
5	Gure ikuskera	... 10
6	Gure balioak	... 11
7	Helburuak	... 12
8	Jarduera-eremuak	... 13
9	Pertsonak	... 15
10	Gizarte eragina	... 16






1. Justifikazioa

Salletar proiektua zaugarrirei arreta jarriz sortu zen. La Salleko Joan Bautistak ezagutzen zuen kalean aurkitzen ziren haurren zaugarritasuna, baina ez zen hor gelditu. Besteek ez ikusiarena egitea erabaki zuten bitartean, berak abagunea ikusi zuen. Horrela, berak eta lehenengo Anaiek, “artisauen eta behartsuen semeen abandonu-egoerak hunkituta”, fedearen argitan, Anaidiaren misioa deskubritu zuten.

Beren garaiko pobrezia- eta marjinazio-egoerekiko sentsibiltate horrek hurrei eta maisuei euren duintasuna deskubritzea ahalbidetuko zieten egokierak sortzera eraman zituen, eskolatik kanpo zeudenei inklusiorako eta ezagutzara iristeko abaguneak sortuz. Jabetuta zeuden “Jainkoa ona dela eta denak salbatzea nahi duela”. Bazekiten hark baliabideak emango zizkiela mundu bidezkoago baten alde lan egin zezaten. Eskola honek ateak ireki zituen garai hartan nagusi ziren banaketa sozial zurrunetan. Salletar kristau presentzia hau, gure dokumentu historikoek erakusten duten bezala, ikasgelan gertatzen zena baino askoz haratago joan zen, topatzen zituzten beharrei erantzunak eskainiz:

- Ruan-en barnetegi bat sortu zen.
- San Yon-en erregimen zorrotzeko erreformatorio bat eta erbesteratutako noble irlandarrentzat, atzerriratuen ikastetxe bat.
- Igandeetako eskolak sortu ziren langile gazteentzat.
- Arte eta lanbide eskola bati hasiera eman zitzaion.

Gaur egun ere, salletarrok deshumanizazio-eremu sakonak aurkitzen ditugu. Errealitate horren aurrean, axolatu gabe jarraitzeko hautua egin dezakegu, edo, La Salle eta lehen Anaiak bezala, deshumanizazio horren erantzunetan geure bokazioaren funtsa eta Salletar Proiektuaren zentzu eguneratua aurki ditzakegu.



“Salletarrok badakigu duela 340 urte baino gehiago hasitako historiak jarraitzen duela gaur eta horrek harritzen gaitu Jainkoaren asmoa adierazten baitu. Jakinduriaz eta adeitasunez, Jainkoak Anaidia gidatu du mende bakoitzean aurkitzeko, egoeren eta lekuen arabera, baliabideak, pertsonak, talde konprometituak eta asoziatuak misioari jarraipena emateko, haurrak, gazteak eta helduak giza eta kristautasunean hezteko, bereziki behartsuak. Era honetan, maisu-talde txiki batekin hasi zen abentura Anaïen elkarte bihurtu zen aurrena eta, urteetan aurrera, salletar konprometitutako talde handi bat. Kultura, hizkuntza eta tradizio askotako gizon eta emakume horiek zerumugak proposatzen, bihotzak mugitzen eta buruak argitzen aritzen dira, bizitzak, pertsonak eta gizarteak eraldatzea sustatzen duten aukerak sortzeko gaitasuna ematen duen hezkuntzaren bidez”.

(Deklarazioa Salletar Hezkuntza Misioari buruz, 116 or.)



2. Uste sendoak

Gure munduan aurkitzen dugunari erantzuteko La Sallen garatzen dugun egintza hainbat uste sendotan oinarritzen da:



Sinesten dugu...

“... pobretuen eta zaugarrien aurpegian Jainkoaren indar salbatzailearekin topo egiten dugula. Gure tradizioak bere sustraia pobreen, baztertuen, garrantzirik gabekoen lehentasunezko zerbitzuan hondoratzen ditu, hau da, beren egoera ahula beren ametsak eraikitzeo eta bizitza duina eta zorionsua izateko oztopo duten haur eta gazteen zerbitzuan. Gaur egun, gure konpromisoa pobrezia berriak identifikatzean datza, beti baitaude deshumanizazioaren, abagune faltaren eta marjinazioaren mugetan, eta horiek pairatzen dituztenei zerbitzua ematean”.

(Deklarazioa Salletar Hezkuntza Misiolari buruz, 117 or.)

“... beste mundu bat posible dela eta hezkuntza funtsezko indarra dela hori eraikitzeo. Gure hezitzaile-begiradak bakea, ekitatea, justizia soziala, herritarren parte-hartzea, amets bateratuak eraikitzea eta askatasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua posible diren gizarateak eraiki nahi ditu. Ikusgai egiten dugu gizarate demokratikoago eta bidezkoago batekin dugun konpromisoa, baita guztion mesederako izango den giza garapen integral eta jasangarriaren aldeko hautua ere. Bakerako heztea justiziarako eta solidaritaterako heztea da”.

(Deklarazioa Salletar Hezkuntza Misiolari buruz, 122 or.)



Baturik sentitzen gara...

... 46. Kapituluko Orokorrean adierazten den amets honetan: “Salletar Familia bat bera gara, bokazio ezberdinez; mundu senide-arteago batentzat legamia, pobreengan Jainkoa topatzera eta justizia sustatzera bidaliak”.

... III. AIMELen, “gure garaian areagotzen ari diren pobrezia-modu ezberdinen inguruan sentsibilizatzeko, eta errealitate horien alde interpelatzen eta hunkitzen uzteko” proposamenen.



Identifikatzen gara...

... III. AIMELen 5. proposamenarekin, zeinak bultzatzen digun “Barruti bakoitzean edo hezkuntza-obra bakoitzaren eremuan, dagokionaren arabera, programa jasagarriak eta elkarte intentzionalak sortu, babestu, sustatu eta ezartzea, pobrezia bere forma guztietan desagerrarazteko, inklusibitate printzipioak, senidetasunaren kultura eta erantzukidetasuna sendotuz”.

... Barrutiko III. Kapituluekin, zeinak pobreen hezkuntza-beharrak gure hezkuntza eta ebanjelizazio misioan pobreen eta gure misioaren hartzaille guztien artean mundu senide-arteago eta bidezkoago bat sortzeko erronka egiten digun, bereziki pobreen eta giza eskubideak era askotan urratuak dituztenen aldeko zuzeneko zerbitzuan.



... nazioarteko komunitatearekin, gure munduak bizi duen errealitateari eta sortzen diren beharrei buruzko gogoetan eta beharrezkoak diren erantzunetan, gure identitatean komunitateak duen balioarekin eta sareko lanarekin bat etorritz. Erantzun horiek Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) gisa formulatuta daude 2030 Agendaren barruan, non proposamen argiak aurkezten diren pobrezia desagerrarazteko, giza eskubideetarako sarbidea zabaltzeko, garapen ekonomiko global jasangarria lortzeko eta planeta eta eskaintzen dituen baliabideak errespetatzeko.

... Frantzisko aita santuak sustatutako Hezkuntza Itun Globalarekin, abegikortasunean besteak eta geure burua hezten inplikatzeko gonbidapenean, zaugarrienei eta baztertueni irekita. Itun horrek adierazten digu mundu globalizatu honetan oraindik ez dela berdintasun orokorrik lortu, baizik eta desoreka sozial, ekonomiko eta kultural asko areagotu egin direla. Balioan jartzen digu gizarte bat osasuntsua dela zaugarrienei abegi egiten dakienean, baztertuekiko interesa duenean, eskubide osoko herritarrak izan daitezen.

... Laudato “Si” entziklikarekin baiesten duenean giza alorreko egiazko garapenak baduela bere alderdi morala, eta pertsonaganako errespetu osoa eskatzen duela, baina arreta jarritz naturaren munduari ere; eta «aintzakotzat hartu izaki bakoitzaren izaera eta ordena bat duen sistemarekin dituen elkarrekiko loturak». Beraz, errealitatea aldatzeko gizakiak duen gaitasuna garatzekoan ez du ahaztu behar, Jainkoagandik doan hartuak izan ditugula jatorrian gauza guztiak.

(Laudato Si, 5. zk.)

La Sallen, adierazitako uste sendoek pertsona zaurgarriekiko konpromisora eramaten jarraitzen gaituzte, bizi garen testuinguru desberdinetan.

Barrutian errealitate horren aurrean ematen ditugun erantzunen adierazpen globala, esapide honen baitan aurkezten dugu...



3. Definizioa

Plataforma bat da La Salle Gizarte Ekintza, modu bateratuan La Sallek aurkezten eta sustatzen duena hezkuntzaren, justiziaren eta eraldaketa sozialaren alde egiten duen lan sozial guztia, gizartean dituen presentzia-modu desberdinen bidez.

La Salle Gizarte Ekintzak Nazaretoko Jesusen eta La Salleko Joan Bautistaren arrastoari jarraitzeko salletarren hautua erakusten du, mundu bidezkoago, senide-artekoago eta solidarioago baten eraikuntzan.

Pertsonei abegi egin, laguntasuna eskaini eta haiekin batera bidea egiteko hautua adierazten du, haien premiei erantzunez, haien eskubideak defendatuz eta eragin sozial eta politikoa izateko gogoz, helburuak hobeto lortzeko beste zenbait kolektiboekin sinergiak sortuz.

4. Gure misioa

Pertsona guztien, bereziki zaugarrienen, bizitza duina eta osoa izateko eskubidea sustatzea abaguneen berdintasunean.

Bakoitzaren gaitasun indibidual eta kolektiboen garapen integrala sustatzea, gizartearen eraldatzeko bitarteko gisa, hezkuntzaren, prebentzioaren, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen bidez, eta gizarte eta lan sustapenaren eta partaidetza komunitarioaren bidez.

Sentsibilizazioa sustatzea mundu bidezkoago eta solidarioago baten aldeko konpromisoa sortzeko, gizartearen eragiteko bokazioa izango duena.






5. Gure ikuskera

Salletar komunitatearen eta gizartearen artean sinergiak sortzen dituen plataforma gara.

Justiziarekin, eraldaketa sozialarekin eta giza garapen integralarekin konprometituta gaude.

Ahaleginak eta baliabideak erakunde publiko eta pribatuekin koordinatzea sustatzen dugu.

Geure ezaugarria da pertsonen eskubideak defendatzea, batez ere oinarritzko premiak asetzeko mekanismorik eta gaitasunik ez dutenenak.





6. Gure balioak

Senidetasuna

Sinesten dugu bestearekiko topaketan oinarritutako harremanetan, non berdintasuna, onarpena eta aniztasunarekiko errespetua diren elkarren arteko erlazioaren oinarriak.

Sentsibiltatea

Gure begirada pertsonengan jarria dugu, eta horrek ahalbidetzen digu haien indarguneak eta ahuleziak deskubritzea.

Elkartea

Sinesten dugu elkarrekin aurkitu dezakegula erantzunik onena besteengan deskubritutako premiei erantzuteko.

Zerbitzua

Sinesten dugu konpromiso pertsonalean, mundu bidezkoago eta kohesionatuago bat lortzeko biderik onena delako.

Erantzukidetasuna

Konfiantzatik abiatuta, pertsonen parte-hartzea sustatzen dugu, haien protagonismoa eta lotura partekatua sustatuz.

Sormena, berrikuntza eta kalitatea

Aldaketara eta etengabeko hobekuntzara irekita gaude, geure baliabideak optimizatuz eta pertsonen zerbitzura jarritz, gizartea eraldatzeko elementu gisa.

Lankidetzatza


Sarean lan egiten dugu beste gizarte- eta eliza-erakundeekin, baita entitate publiko eta pribatuekin ere.

Gardentasuna

Gizarteari, gure jardunaren etikatik, geure lanaren irudi fidela eskaintzen diogu.

Barnekotasuna

Pertsona bakoitzak bere bizi proiektua eraiki dezala sustatzen dugu, gogoetatik, nork bere buruaren ezagutzatik, autoestimutik, benetakotasun-desiotik eta konpromisotik abiatuta.



7. Helburuak

1

Salletar komunitatearen barruan eta elizaren eta beste gizarte-erakundeen artean sinergiak sortzen dituen plataforma gisa konfiguratzea geure burua, haiekin batera eragin soziala sortuz.

2

La Sallek hezkuntzaren, justiziaren eta eraldaketa sozialaren alde egiten duen lan guztiari batasuna ematea, gizartean dituen presentzia-modu desberdinen bidez.

3

La Salleren irudia sendotzea, konpromiso sozial handiko erakunde gisa, egindako lan guztiaren barneko eta kanpoko komunikazioaren bidez.

4

La Salleren gizarte-lanaren marka ofizial gisa aurkeztea.



8. Jarduera eremuak



Gizarte-hezkuntzazko obrak

- Hezkuntza psikosozial esku-hartzea hurrekin, nerabeekin, familiekin eta pertsona helduekin.
- Adin txikikoen egoitza-guneetan eta gazteen eta helduen emantzipazio-guneetan esku hartzea.
- Esku-hartze soziorabala.
- Partaidetza eta ekintza komunitarioa.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen harrera egitea, babesa eta sustapena eskaintzea eta integratzea.
- Ikastetxeetan eta unibertsitate-campusetan sentsibilizazioa bultzatzea, bai ikasleengan, bai hezitzaileengan baita familietan ere.
- kastetxe, unibertsitate-campus edo beste testuinguruetako gazte, heldu edo hezitzaileei boluntariotza eskaintzea.

GGKE

- Garapenerako Lankidetzak-proiektuak.
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen sustapena.
- Sentsibilizazio eta eragin politikoko kanpainak.
- Nazio edo nazioarte mailako boluntariotzaren eskaintza pertsonen.
- Bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen sustapena.

Ikastetxeak eta erakunde unibertsitarioak

- Sentsibilizazioa GGKEek proposatutako material espezifikoaren bitartez, gizarte-hezkuntzazko obren, ikasturteko goiburuen edota eguneroko egoerei buruzko gogoetaren bidez.
- Errealitatera hurbiltzea, dela eskola-eremura ekarri, dela aurkitzen den lekura joanez, justizian, solidaritatean eta bakean hezteko planak proposatzen duen bezala.
- Curriculumari, SalleGazte taldeen dinamikari... loturiko ekintza solidarioak proposatzea.
- Boluntariotzako esperientzien eskaintza, dela eskola-orduetan, dela eskolatik kanpo. Boluntariotza egin ahal izango da ingurune hurbilean, nazio-lurraldean nahiz nazioartekoan.
- Ikaskuntza Testuinguru Berriak proposatzen duen hurbilketa sistematikoa, esperientziala eta diziplinartekoa.

Elkarteak

- Elkarrekin harrera egitea gazteei eta familia migratzaileei.
- Hezkuntza-obretan babesa eskaintzea.
- Salletar ez diren GGKEetan parte hartzea.
- Boluntariotza Caritasen, parroketan, kartzeleetan, elikagai-bankuetan, salletar ez diren gizarte-hezkuntzazko obretan...
- Nazioarteko boluntariotza.

SalleGazte

- Boluntariotza Gizarte Ekintza Planetik abiatuz.
- Udako Boluntariotza: auzolandegiak, Barrutiko gizarte-hezkuntzazko obretako boluntariotza, nazioarteko boluntariotza...

9. Pertsonak

Gizarte ekintza garatzeko, ezinbestekoa da euren onena emango duten pertsonak edukitzea, agindutako misioa betetzeko eta La Salle Gizarte Ekintzaren ikuspegia ahalbidetzeko. Pertsona horiek eremu profesionaletik nahiz boluntariotzatik datoz.

Profesionalek ezagutza espezializatuak, esperientzia profesionala, koordinaziorako eta kudeaketarako trebetasunak eta erantzukizun legal eta etikoari buruzko ezagutza eskaintzen dituzte.

Boluntarioak salletar obren gizarte-ekintzaren funtsezko zutabea dira; haien dedikazioa eta konpromisoa ezinbestekoak dira programa eta proiektu askoren arrakastarako.

Profesionalekin batera, funtsezkoak dira La Salleren misioa eta ikuskera errealitate bihurtzeko, zaurgarrienen alde. Horregatik, eremu guztietan boluntariotza egin ahal izateko guneak eskaintzen dira.

Pertsona horien elkarte-bizipena alderdi barne-barnekoa eta funtsezkoa da zaurgarriekiko konpromisoan. Elkarteak errealitateari buruzko hausnarketa errazten du eta justiziaren aldeko ekintzak eta solidaritateak mundua eraldatzen laguntzeko duen konbentzimendu partekatua areagotzen.

Laburbilduz, gizarte-ekintzako profesionalak eta boluntarioak osagarriak dira, biek euren esperientzia, ezagutzak eta trebetasunak eskaintzen baitituzte gizarte-premiei aurre egiteko.



10. Gizarte eragina

Gizarte Ekintzari buruz adierazitako definizioarekin La Salle bat etorritz, lehentasunezko ildotzat jotzen dugu “gizarte eragin eta politikoa izateko borondatea, helburuak hobeto lortzeko beste kolektibo batzuekin sinergiak sortuz”.

Gure ustez eragin horrek suposatzen du hiritarren eskubideen eta demokraziaren erabilera, giza eskubideak eta justizia soziala urratzen dituzten edo defendatzen ez duten gobernu eta administrazioen erabakien aurrean, eta guztion ongiriaren babesa sustatzen ez dutenean, hau da, gizateriaren benetako esentzian kokatzen dena eta edozein motatako interesak atzean uzten dituen, eta, zehazkiago, politikoak, ekonomikoak edo finantzarioak, betiere gure balio salletarrekiko koherentzian.

Funtsezkotzat jotzen dugu barnera begiratzen duen sentsibilizazioaren alderdia. Ekintzak, txikiak izan arren, berehalako aldaketa gertatzen laguntzen dute, eta, epe luzera, kontzientzia sozialaren diseinu berritu bilakatzen da; eta kanpora begira, ikusarazle eta salatzaile, eta aldaketa horrek maila globalagoan eta modu iraunkorragoan posible egin dezakegun eremuen defentsan jarriko gaitu.

Jakin badakigu benetako eragina izateko beharrezkoa dela sarean lan egitea, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen eta GGKEen arteko lankidetzak sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Lantaldeetan, batzordeetan, plataformetako zuzendaritza-batzordeetan, koordinakundeetan, sareetan eta abarretan parte hartuz, erakunde politikoekiko eta erabakitzeko ahalmena dutenekiko harremanen lagungarri bilakatzen da, legedi, plan, akordio, itun eta abarren aldaketan eragiteko, erakunde gisa hurbil ditugun alderdiei buruz (haurrak, hezkuntza, pobrezia, bazterketa, boluntarioria, eta abar), eta aurrerapena eta hobekuntza posible izan dadin beharrezko direnak.

Erakunde gisa, bere eremu guztietan, La Sallek eginkizun erabakigarritzat bere gain hartzen du herritarren prestakuntza, gai izan daitezen euren eskubideak gauzatzeko, euren betebeharrak betetzeko, arlo publikoa defendatzeko, gizarte ehuna sendotzeko, prozesu demokratikoetan parte hartzeko eta politikan eta politikoa den orotan interesa izateko gai izan daitezen, 2020ko “Salletar Hezkuntza Misioari buruzko Deklarazioak” jasotzen duen bezala.

Justizia
Berdintasuna

Abagunea
Babesa

Abegia
Ekitatea

Arreta Zertutasuna
Zerbitzua

Entrega



GIZARTE EKINTZA

Arlep Barrutia



www.lasalle.es